

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1995ko abenduaren 1a

*



Hiru sari, hiru izen

■ Iruñeko Udalak egile berrientzat antolatzen duen literatur lehiaketa da egun Nafarroan dagoen garrantzitsuenetakoa. Idazle gazteek bertan dute euren burua trebatzeko aukera. Atarrabiako Udalak antolatzen duen

lehiaketarekin batera, gainera, bakanetakoa da, Xalbador lehiaketa desagertu ondoren. Aurtengo ekitaldian Juantxo Urdiroz, Mikel Alzuart eta Joxemiel Bidador izan dira irabazle. ■

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Historia de Pamplona liburua nire eskutara heldu zenean, deus gutxi nenkien nire hiriaren historiari eta, nenkien aurrerantz, zertzeladaz eta pasadizoz beteta zetorkidan ongi apainduta. Hurbileko jendearengandik nuen jasoa eta, kokapen denboralari dagokionez, mende honen lehenbiziko erdiari lotuta zegoen, ia erabat. Ezinbesteko zereginaren zen hura, askatasunean errotutako beste hedabiderik ezean, belarriak eta begiak findu behar zirelako guraso eta beste etxekoekin kontakizunetara, garai hartako heziketa itogarri hartatik ihes egin eta zerbait sano jaso nahi bazen. Eta nik, fortunaz, plaza ona izan nuen hartarako: nire etxean bertan, alegia.

Nafarroako historiari asko zekienez giazaseme prestua zela, Artaxonan jaioa baina ez zela berrogei-etako astozakil haiek bezalakoa, eta guztiz gain, tipo jator, apal eta jakintsua zela adituko nion nere aita zenari, berak Jimeno Jurioz hitz egiten zigun bakoitzean. Itxura guzien arabera, estimu haundia

zioten elkarri, egileak berak nire aitari oparitzat emandako *Historia de Pamplona* alean eskuz idatzita ageri den dedikatoriak argi frogatzen duenez: bihotzez egina dagoela antzematen zaio.

1974.ean gaude, Diktadorea bizirik zelarik, artean 21 urte nituela. Urte berarean halaber, Apat-Etxebarne, Angel Irigarainen *Una geografía diacrónica del Euskera en Navarra* izenburuko liburua argia ikusten du, zeina, aurrekoarekin batera eta baita ere, urte batzuk lehenago leitu nuen *No me avergonzaré del Evangelio*; M. Aierrak idatzia, hiru zutabe sendo izan ziren ordura arteko nire ezagupena —bai Iruñeko historiari, nola euskararen bilakaeraz Nafarroan, zein 36ko sarraski zibilaz— haunditu eta trinkotzeko. Gisa hartan bada, etxekoek bizi izandako eta beraiegangandik jasoak nituen bizipen eta kontakizunei gehitzen nien horrela, aipatu egileek eta bestek ikerketa metodologiko ez dotriarioari esker lortutako emari akademikoa. Eta Jimeno Jurio izan zen, hain

zuzen ere, gure historiografia modernoa abian jarri zuen haietako bat: historiaren ikerlari.

Hiru urte beranduago, 1977.ean —eta ez egunkari honek dioen bezala, 1976.ean, ikus, azaroaren 25eko zenbakia—, *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco* berebiziko lana plazaratzen du Artaxonakoak. Zenbat bider aipu egingo ote zen liburu horren tesia orduko eztabaida politikoetan! (garai utopiko haietatik jauzi sakona egin bide dugu gaurkoetara: kimeraren menpeko egunak).

Egunak egun, orain dela gutxi, *Historia de Pamplona y sus lenguas* aurkeztu du JJK. Bere azken lana da eta orduko hari segida eman nahi izan dio hizkuntzen gora-beherak aipatuz, euskarari dagozkionak, bereziki. Pena dut ordea, *Iruñeko historia eta bere hizkuntzak* izenburu eta edukina bideratu ez izana. Honen zergatia? Ba... duda gabe historiaren barrenean kokatu beharko litzateke. Baina hori, beste istorio bat da. Ezta? X

Revival / Gorazarrea

GUERE AUKERAK

ERAKUSKETAK

Iruñea: Jai Alai jatetxean Luis Araujo, Juan eta Santiago Cia, Pilar Garcia Escribano, Arturo Gracia, Isidro Lopez Murias, Rafael Ubani, Javier Viscarret eta Ines Zudaireren margoak daude ikusgai abenduaren 9a arte.

Iruñea: Pintzel aretoan Carlos Lopez margolariaren lanak daude ikusgai gaurtik abenduaren 29ra arte. Erakusketa, 10.00etatik 13.30ak arte eta 16.30etatik 20.00ak arte egonen da zabalik astegunetan eta larunbatetan 10.00etatik 13.30ak bitartean.

Iruñea: Lacava kafetegian Blanca Garnikaren eskulturak ikusteko parada dago. Abenduaren 11 bitartean dago ikusgai.

KONTZERTUAK

Garraida: Udazkeneko Bira 95 egitarauaren barruan bihar Syrinx ganbara taldeak kontzertua eskainiko du 19.45etan elizan.

Barillas: Murtxanteko abesbatzak herriko elizan abestuko du igandean eguerdiko 12.00etan.

Ituren: Enrike Zelaia akordeoi-lariak herriko etxean joko du 12.30etan. Emanaldia igandean izanen da.

BESTELAKOAK

Altsasu: Ipuinak euskaraz kontatuko dituzte gaur arratsaldeko 7.00etan udal liburutegian. Saloa 5 eta 14 urte bitarteko neska-mutilei zuzendua dago.

Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoan asteartean, abenduak 5 Simaur bidezko ongarritze organikoaren problematika hitzaldia izanen da 19.00etan.

ANTZERKIA

Ezkaroze: Pasadas las 4 taldeak *Te lo juro por mi madre que me las voy a cobrar* lana antzeztuko du Ballarako Etxean. Emanaldia bihar izanen da gaueko 21.00etan.

Tafalla: Tanttaka antzerki taldeak *Todas culpables* antzezlanak eskainiko du asteartean, abenduak 5 Kultur Etxean. Antzerkia arratsaldeko 8.00etan izanen da eta sarrera 300 pezetan.

ZINEMA

Tafalla: *Un ladrón de cuatro manos* eskainiko dute bihar, 18.00etan, eta etzi, 15.45etan. Sarrera 200 pezetan. Ostegunean, berriz, *Las cosas del querer* filmea eskainiko dute Cinema Españolen, 20.00etan eta gaueko 22.30etan. Sarrera 100 pezetan.

BERTSO SAIOAK

Altsasu: Euskararen Astea dela eta bertso saioa izanen da 20.00etan Gure Etxea elkartearen Jose Fermin Argiñarena, Bittor Elizagoien, Estitxu Arozena eta Josema Leitza bertsolariak ariko dira buruz buruko saioan.

na farkronika


Jon Alonso

Izendegia

Rubenek arrazoi zuen; ez zuten Julen kanpoan utzi behar. Julen txapeldunorde da, eta eskubidea zuen bigarren postu hori defenditzeko. Konforme, Augustok jende gehiago eramaten du frontoira, Errioxan batez ere, baina, nork esan dezake Jokinek, adibidez, kartel handiagoa duela Julenek baino? Martinek, beharbada. Julianek, nola ez. Julian atera beharko da kantxara *El Campeador* borrokalekura atera omen zuten bezala. Baita hil eta gero ere, alegia. Eta irabazi egingo du, gainera. Ea aurten Ladisekin moldatzen den, ze Ladisekin moldatzea ez da erraza izango. Fernando jarri izan balio, edo Iñaxio... Baina Iñaxio Jose Mari baino hobeki dabil, eta Jo-xean erretiratu egin da, hori pena. Jaki-na, Jokinekin ez zuten jarriko. Jokin kezkatuta omen dago, Rufino bera bezala, antzeko arazoak omen dituzte eta. Nik uste Mikelen botileroa-rena egin zuenean, Patxiren kontrako hartan, pilota nora bidali behar zuen esan beharrean, Mikel, zure krezepe-lo-marka esaidazu erreguka ari zitzaiola. Beharbada horregatik ez zion Patxik eskua eman. Ezagunak dira Patxik eskuekin di-tuen problemak. Lastima, esku horiek, Rostropobitx-

ek harrapatu izan balitu... Dena den, azken garai hauetan Jorgek zein ongi hartu dion distantzia lau t'erdikoari da mintzagai. Beharko hartu, distantzia. Distantzia baino, tope.

Mintzatu behar dut honetaz Josetxo eta Jose Marirekin; hala eskatu didate Ulpianok, Olegariok eta Pedro Luisek. Sebastianek, Mikolasek eta Kaxildok, aldiz, beste galdera hau egi-teko eskatu didate. Non dago Maider? Horixe, non dago Maider?



asteko pertsonaiak



Daniel Saralegi
Gazteriaren Kontseiluko lehendakaria



Santiago Calatrava
Arkitektoa

■ Daniel Saralegi iruindarra da Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko lehendakari berria. Akzio Katolikoko Gazteen taldeko partaide da Saralegi eta joan den larunbatean Gazteriaren Kontseiluak egindako VIII. Batzorde Nagusia aukeratu zuten lehendakari. Gaztediaren Kontseiluko buru berriak iragarri duenez, datorren urtean zehar kontzientzia eragozpena eta sexuen arteko berdintasunaren alde egingen du lan Gazte Kontseiluak. Ildo honetan, intsumisioari buruzko lan estatistikoa egin behar du eta gaiari buruzko aldizkari bat ere kaleratuko dute. Era berean, elkartetik emakumearen eta gizonaren arteko benetako berdintasuna bultzatzen saiatuko dela azpimarratu du lehendakari berriak.

■ Santiago Calatrava arkitekto valentziarraren lanari buruzko erakusketa ikusgai dago Nafarroako Museoa urtarilaren 14ra arte, proiektuen plano, eskultura eta maketa anitz dituela. Erakusketa Espainiako Herri-lan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak antolatuta du eta Europa osoan zehar ibili ondoren, Iruñea izanen du azken erakustoki. Valentzian 1951. urtean jaio zen Santiago Calatrava eta egun Zurich (Suitza) bizi da. Arte Ederretan lizentziaduna da eta bere lanak bi zutabe dituela erran daiteke: matematika eta gorputzaren —gizakiarena zein animaliena— ikerketa. Egun bizirik dagoen arkitekto rik famatuenetakoa da Calatrava eta Euskal Herrian lan askorik egin ez badu ere, berea da Sondikako aireportuaren berrikuntza.

ahaztu gabe!



LEHIAKETA

Zangoza: Zangozako Udalak bertako Olenzeroaren 25. urteurrena ospatzeko margo lehiaketa antolatuta du. Lehiakideek, Olenzero gaitzat hartuz, lan bakarra aurkeztu beharko dute nahi duten neurri-eta azaleran. Lanak aurkezteko epea heldu den asteartean, abenduak 5, bukatzen da eta arratsaldeko 2ak baino lehen igorri beharko dira Zangozako Udaleko Kultur Etxera. Lehiaketan parte hartzen duten margo guztiak Kultur Etxeko eskaileretan eta sarreran erakutsiko dira abenduaren 8tik 20ra bitartean, eta erakusketara bertara hurbiltzen diren bisitariak izanen dira epaimahaiko, beraiek emandako iritziak erabakiko baitu zein den irabazlea eta aurkeztutako lanen kalitatea. Sari bakarra dago: irabazleak 25.000 pezetako saria (1.000 libera hor nonbait) jasoko du. Irabazlea zein den abenduaren 21ean esanen du Zangozako Udalak. Lehiaketa bukatu ostean, parte-hartzaileek hilabeteko epea dute beren lanak jasotzeko, sarituak izan ezik, honek Udalaren esku utziko baitu.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketarako.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaitetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Leitza

Kantu Txapelketako bigarren saioa

Arratsaldeko bostetatik aurrera izanen da Leitzako zinema aretoan

Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako bigarren kanporaketa saioa bihar egingen dute Leitzan. Bertan, Leitzaldeko, Bortzirietako, Malerrekako eta Baztango haurrak ariko dira kantari. Leitzako saioa bukatzean, Doneztebeko finalean abenduaren 16an izanen diren haurren izena argitu eta zein abestirekin parte hartuko duten jakinaraziko dute epaimahaiko kideek.

Erredakzioa / Iruñea

JOAN den larunbatean Burlatan lehenengoa ospatu eta gero, Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako bigarren kanporaketa Leitzan ospatuko dute bihar, arratsaldeko bostetatik aurrera, herriko zinetokian.

Leitzako kanporaketan, hain zuzen, Leitzaldeko, Bortzirietako, Malerrekako eta Baztango haurrak ariko dira kantuan. Ehun haur eta musikari inguruk hartuko dute parte biharko saioan eta denetara 26 abesti entzun ahal izanen dituzte bertara hurbildutakoek.

Leitzako bertako Urkaitz taldea izanen da parte hartuko duen lehenengoa. Honen ondoren, Goizuetako Dani eta Ainara NARBARTe bikoteak, Doneztebeko Zazpigarren Zerua taldeak, Leitzako Ainara de Miguel bakarlarriak, Iruñeko Arturo Kanpion taldeak, Elizondoko Maider eta Sobrino eta Miren Urtizberea bikoteak, Leitzako Rakel Erbiti eta Maite Zelaleta bikoteak, Berako Ainhoa Agirre bakarlarriak,



Kantu txapelketako bigarren kanporaketa Leitzan izanen da.

L. E.

Amaiurko Ausartak taldeak, Leitzako Txalaparta taldeak, Igantzik Unanu taldeak, Goizuetako Irune Zabala bakarlarriak, Doneztebeko Kurkuxa taldeak, Leitzako Paula Arburua eta Inaxio Iturrarte bikoteak, Elizondoko Mari Beltza eta Bihotz Unanua bikoteak, Sunbillako Joana eta Miren Hernandorena bikoteak, Berako Ainhoa Agirre eta Saioa Ataun bikoteak, Lesakako Erika Lagoma eta Alaitz Rekondo bikoteak eta Leitzako Tribua taldeak

hartuko dute parte.

Haurrek kantu bakarria edo bi abesteko aukera izanen dute Leitzako saio honetan, Burlatakoan bezala.

Leitzako saioa bukatu eta gero, Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako finalean parte hartuko duten haurren izenak jakinaraziko dituzte epaimahaia osatzen duten kideek. Halaber, azken saioan zein kantu abestuko duten ere argituko dute Leitzako saioaren ondoren.

Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako finala, hain zuzen, Donezteben izanen da, hil honen 16an. Herriko Bortatxo dantzalekua izanen da azken saio honen lekuko. Hara hurbilduko diren ikusle guztiek aurtengo Nafarroako Euskal Kantu Lehiaketako txapeldun berria txalotzeko aukera izanen dute. Erabakia ez da, ordea, erraza izanen, kalitate ona erakutsi baitute haur kantariak orain arte Burlatako saioan. X

Lizarra

HIESaren Eguna gaur

■ Hainbat ekitaldi antolatu dituzte herrian

Erredakzioa / Iruñea

HIES-AREN Aurkako Borrokaren Nazioarteko Eguna da gaur. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Nafarroako HIESaren Aurkako Batzordeak Lizarrako batzordearen laguntzaz. Zumake eta Tximeleta herriko taldeek eta beste hainbat lagunere ere eskaini dute euren laguntza egun honetako ekitaldiak aurrera ateratzeko.

Aurtengo HIESaren Aurkako Borrokaren Nazioarteko Eguna-ren leloa *Konpartitutako eskubide eta betebeharrak* izanen da, haiz zuen.

Egun osoan zehar, HIESari buruzko informazioa eskainiko duen mahaia egonen da San Juan plazan, baita herriko ikas-

tetxeetan ere. Bertan, HIESaren prebentzioari buruzko informazioa lortzeaz gain, pegatinak, lazoak eta antisorgailuak ere eskuratu ahal izanen dira, dohai-nik.

Ekitaldi hauen guztien antolatzaileek mahai hauetara hurbiltzeko deia egin nahi izan diete herritar guztiei.

Bestalde, arratsaldeko 8etan *En el filo de la duda* filmea eman-go dute Julian Romano Kontserbatorioan eta dohainik. Filmea ikusi ondoren, eztabaida egingen dute bertan ikusitakoari buruz. Lizarrako HIESaren Aurkako Batzordeko kide den Toñi Roak eta Udaletxeko Gazteriaren Bulegoko ordezkari batek zuzenduko dute filme osteko eztabaida. X

Arbizu

Herri kirol jaialdia igandean

■ Arratsaldeko bost t'erdietan hasiko da kiroldegian

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Herri Kirol Errekor Jaialdia ospatuko dute etzi Arbizuko kiroldegian, arratsaldeko bost t'erdietatik aurrera. Ordu t'erdiz, urtean zehar egingiko hainbat txapelketarako txapeldunak ariko dira, proba bakoitzeko Nafarroako errekorra ontzeko asmoz. Proba konbinatuan Artralotz eta Uliamako taldeak ariko dira 7 minutu eta 21 segunduko denbora hobetu nahian. Ingudearekin, Jose Antonio Loiarte 86 aldi baino gehiagotan jasotzen saiatuko da. Zakulariek ere lan ederra izanen dute. Berriozarko Bujanda, Blanco eta Cano ariko dira ordubete, 34 minutu eta 7 segunduko denbora ontzeko asmoz.

Sokatira ikuskizuna ere izanen da. Areso eta Beti Gazte taldeak ariko dira mutilen aldetik, eta Sakana eta Berriozarkoak nesken aldetik. Patrizia Lopez de Zubiria eta Leire Portu, berriz, kozkorak biltzen ibiliko dira. Bi minutu eta 31 segundutan dago egun Nafarroako errekorra. Orga jokoa Miguel Angel Etxegarai izanen da, aizkoran Kristina Saralegi nesketan, eta Mikel Mindegia eta Donato Larretxea gizonezkoetan. Lastoa altxatzen Miguel Angel Etxarte ibiliko da.

Patxi Larretxea harria 31 aldi baino gehiagotan jasotzen saiatuko da. Martin eta Esteban Pikabea arpanlarriak, azkenik, 15 minutu eta 17 segunduko marka ontzen saiatuko dira. X

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Zorionak

Gabonak gainean ditugu jada. Iruñeko Alde Zaharrean argi apaingarriak piztu dituzte jada. Nik, bederen, hori entzun dut irratian. Kartzelan gehienbat telebistako iragarriak direla medio sumatzen da eguberrien gertutasuna. Azken bolada honetan pantaila txikia pizten dudana bakoitzean behin eta berriz parratu behar izaten ditut turroi, n djostailu, kolonia eta gaintontzeko oparigaien iragarriak. Orain gutxira arte, horiek guztien artean *pipi* eta *popo* egiten duen panpinarena iruditzen zitzaidan jasagarriena, hoberena. Izan bada, ordea, hori baino hobe den bat.

Joan den egunean ETBko berriemankizunetan esan zutenaren arabera, baliteke Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egin dioten intsumiso presoak —hau da, gutxi batzuk, gehienok soldadutzaren aitzinean egin ginen eta intsumiso— datozen gabonetan etxera itzuli ahal izatea. Baliteke mutiko jator eta zintzo horiek haien familien konpainian jan ahal izatea aurtengo turroia. Azken hilabeteotan zehar kartzelara hamaika bisita egin eta gero, arropa zikinenez beteriko makina bat poltsa garbitu eta gero, fi-



nean, semea kartzelan daukatelako horrenbeste sufritu eta gero, intsumiso horien amak zoriontsu izan litezke gainean ditugun jailetan. *Tumaxa, non plus ultra, gehiegiegia*, eta guztia sozialistei esker. ETBko esatariak azaldu zenez, Espainiako senatuko talde sozialistak, Olenzeroren eskuzabaltasunaz, OZSko intsumisoen berehalako karrikaratzea eskatuko du egunotan egingen den bilkuran.

Zutabe honetatik gure kartzelariak diren sozialisten propaganda aparatoa zoriondu nahi dut, nekez asma daiteke eta, hauteskunde orokorrerako bizpahiru hilabete geratzen direlarik, larriki flakatutako botoemak sozialisten multzoa mardultzeko eguberri-iragarki horiek. Kabroiak, zorionik beroenak. Ea gutxienez iragarri duzueña egia den, eta OZSko kideak askatzen dituzuen.

Egile gazte eta berriak

Urdiroz, Bidador eta Alzuartek eskuratu dituzte Iruñeko Udalaren lehiaketako sariak

Egile berrientzat Iruñeko Udalak antolatzen duen literatur lehiaketaren X. ekitaldiko irabazleen izenak jakinarazi zituzten joan den astean: Juantxo Urdiroz narrazio laburrean, Joxemiel Bidador olerkian eta Mikel Alzuart bertso-paperetan.

Edurne Elizondo / Iruñea

AURTENGO Nafarroako egile berri onenak dira; halakotzat jo ditu behintzat urtero Iruñeko Udalak antolatzen duen sariketako epaimahaiak. Egile gazteentzat egun dagoen literatur lehiaketa bakaretakoa —Xalbador saria desagertu egin zen— eta garrantzitsuenetakoa da Iruñeko Udalarena eta ekitaldi honetan Mikel Alzuart, Joxemiel Bidador eta Juantxo Urdirozek eskuratu dute saria bertso-paperetan, olerkian eta narrazio laburrean hurrenez hurren. Alzuart arizkundarrak Baztan hartu du bere bertsoen iturburu eta *Baztan, zure baitan, zure errailetatik* sortu du. Bidadorrek ere Ollo bere jaioterriaren inguruan kokatu du bere olerkien mamia. *Garañoko gatazkaren bart bezperan* egin besta ixila lanak jaso du saria. Urdirozek *Harri fiction* lanarekin eraman du etxera narrazio laburrei emandako saria. Prosaiz gain, alabaina, olerkian ere lanik eman du Urdirozek, *Hilerrri baten antologia*, eta Bidadorren atzetik, bigarren saria eskuratu du.

Orain arte Iruñeko Udalaren sariketa irabazi duten lanek argirik ikusi ez badute ere, aurtien saridunen obra kaleratzeko asmoa behintzat iragarri dute Udaleko arduradunek. Edonola, egilearen ahotik entzun nahi izan ditugu lan bakoitzaren xehetasun eta nondik norakoak. Joxemiel Bidadorren *Garañoko gatazkaren bart bezperan* egin besta ixila-ri erraz igertzen zaio dantza munduaren ukitua. Bertsoen izenburu, hain zuzen, euskal dantzen izenak jarri ditu egileak. Bertso sortak berak ere dantza munduan du iturburu. Bidadorrek eman digu auzi honen berri: «Dantza taldetan aritua naiz ni. *Akelarre* izeneko lehen ikuskizun bat egin ondoren, bigarren bat prestatzeko ideia bururatu zitzaidan. Dantza eta antzerkia batu nahi nituen eta hortxe hasi nintzen testua prestatzen. Asmoa, ordea, bertan behera gelditu eta antzerki gidoi hura abia-puntutzat hartuz osatu nituen saria lortu duten bertsoak».

Garañoko gaztelua du abiapuntu Bidadorrek bere lanean eta Gaztelak Nafarroa konkistatu zueneko garaia, berri, kokagune. Nafarren eta gaztelarren arteko borroka gertatu aurreko gauean egindako bestari buruz idatzi ditu bere bertsoak. «His-



Alzuart arizkundarrak bertso-paperetan irabazi du, Urdirozek narrazio-laburrean. JOXE LACALLE

Joxemiel Bidador: «Historia aitzakiatzat hartu dut hainbat elementu nahastuz, baina gaurko egoerari begira idatzi dut. Ez da olerki epikoa»

toria aitzakiatzat hartu dut. Hainbat elementu nahastu eta nik nahi nuen erara moldatu ditut, nahiz eta kokagune historikoa benetakoa izan, gaurko egoerari begira ere idatzi baitut. Baina ez da olerki epikoa».

Bidador eroso sentitzen du bere burua olerkiak idazten eta nahago ditu honen baliabideak prosarenak baino. «Poesian mugetan ibili behar duzu beti, muga horiekin jokatzu. Baliabideak, hala ere, anitz dira eta oso aberatsak». Lan honetan zehazki, sinbolismoaren uretan murgildu da Bidador eta erran duenez, «irakurketa anitz dituzte» bere bertsoek. Formari dagokionez, bertso laburrak eta luzeak tartekatu, hitz pilaketa egin, metaforak eta sinboloak erabili eta aditzak ezabatuz nominaliziorantz jo du Bidadorrek.

Gaurko Baztan kolokan • Mikel Alzuart arizkundarrak Baztani buruz bere baitan eta bere errailetatik idatzita eskuratu du

Juantxo Urdiroz: «Idazleen lana, gaur egun, oso mitifikatua dagoela uste dut»

gaurkoa kolokan dago».

Bere bertso sortari *Eguzki de-nean...* doinua jarri dio, «xarmanki ezkontzen baitziren». Kantatzeko zaila dela onartu du, hala ere: «Gaur egun inor gutxi erabiltzen du». Bertso-paperak idaztea ere lan zaila da Alzuarterentzat, berak aitortu duenez, «esfortzu handia egin beharra daukat. Finean, ni ez naiz bertso-paper egilea, mugak baditut. Buruan biraka ideia bat daukadanean baino ez dut idazten».

Akzioa, amodioa eta tiroak • Juantxo Urdirozek bazekien aurtengoaren berri izan baino lehen, Iruñeko Udalak antolatzen duen egile berrientzako lehiaketa irabaztea zer den. X. ekitaldi honetan *Harri fiction* bere narrazio laburrak eskuratu du lehen saria. Akzio handiko testua idatzi du, «jenero beltzekoa. Tiroak, amodioa, akzioa, denetarik dago, baita oso-oso gaiztoa den emakumea ere». Moja den bere izebari gutunak bidaltzen dizkion ilobaren istorioa da Urdirozek idatzi duena. «Moja laster saildu egingo dute eta ilobak bere bitartekaritza eskatu nahi dio Jaungoikoaren mesedea lortzeko». Izenburuari dagokionez, Quentin Tarantino zinema zuzendariaren Pulp fiction filmean izenburuarekin hitz jokoa egin nahi izan du Urdirozek: «Euskal Herrian gaudenez gero, finkoagoa izan behar du, *Harri fiction*, harriko literatura».

Narrazio laburreko lehen sariaz gain, olerkian ere bigarren

saria eskuratu du Urdirozek. «Oso olerki narratiboak dira, beti dago kontakizun bat, nire est-loa oso narratiboa baita beti». *Hilerrri baten antologia* olerki sorta idatzeko Edgar Lee Mastersen



Gaztelak Nafarroa konkistatu zueneko garaian kokatu du Bidadorrek bere olerkia. JOXE LACALLE

liburu bat hartu du oinarri egileak. «Hilerrri batean sartu eta bertako hildakoek euren istorioak kontatzen dituzte liburu honetan. Hemengo istorioak, Iruñeko hilerriko istorioak nola-koak izan zitezkeen imajinatu dut nik».

Nafar literaturgintzari buruz • Bidador, Alzuart eta Urdirozekin literaturgintzaz, sariketaz eta beste hainbat kontuez hitz egiteko aukerari ez diogu ihes egiten utzi nahi izan. Iruñeko egile berrientzako lehen lehiaketa orain hamar urte lehen aldiz antolatu zutenetik saria jaso duten lanak argitaratu ez izana izan dugu lehenik mintzagai.

Joxemiel Bidadorrentzat argi dago lanak ez argitaratzek «euskarari eta literaturari berari» egiten diola kalte. «Egindakoa alderatzeko aukerarik ere ez dugu, ez baitugu besteek egiten dutenaren berri». Urdiroz eta Alzuarten irudikoz ere, egileen arteko harremanik ez dago, alde batetik besteen lana irakurtzeko aukerarik ez dagoelako eta bestetik, elkartzen ez direlako. «Idazleona, finean, komunitate bat da ere baina Nafarroan ez dago hartu-emanik» alpatzen du Mikel Alzuartek. Urdirozek dioenez, «lanak argitaratzea komenigarria da, idazleontzat bultzada ere bada». Hala ere, narrazio laburreko irabazleak azaltzen duen legez, «sariketa honek gure burua trebatzeko balio digu beste edo zertarako baino gehiago eta ez da beti sariketa bat irabazi behar argitaratu ahal izateko».

Nafarroako literaturgintzari buruz iritzi ezberdinak dituzte idazleok. «Geldoa da hemengo literaturgintza» azpimarratzen du Bidadorrek, «eta horren errua gure arteko harreman ezak du. Ez dago mugimendurik, bakoitza

bere aldetik ibiltzen da. Euskal Idazleen Elkarteari esker Bizkaia eta Gipuzkoan asko mugitzen dira idazleak, mintegiak egiten dituzte eta harremana dute. Hemen, nahiz eta noizpait salatu, ez dugu ezer egitea lortu». Bidadorren ustez, halaber, ereduak kanpokoak dira hemen eta literatur gizon gutxi daukagu. Patziku Perurena edo Gil Bera badaude, baina gutxi dira».

Ez da iritzi berekoa Juantxo Urdiroz. «Zen asko dago Nafarroako euskal literaturgintzan, Perurena, Gil Bera, Epaltza, Alonso edo Olasagarre hor dira, besteak beste. Kontuan hartu behar da, noski, Nafarroan zenbat euskaldun dagoen eta literatura ere nolakoa den. Baina baditugu hemen ere hil bitartean idazle izanen diren izen trinkoak ere». Alzuartek ere idazle hauen maila eta garrantzia azpimarratu nahi izan du. Bertsoingintzari dagokionez, halaber, «Nafarroako maila gero eta hobea» dela uste du Baztandarrak, nahiz eta oraindik gipuzkoar eta bizkaitarren atzetik egon. Nafarroan, ordea, «Iparraldeko bertsolariak aritzen dira ere eta bertsolaritza tradizionalari eusten diote».

Halaber, ildo berean, bakoitzak bere burua zertzat duen kontuan hartu behar da ere Bidadorren ustez: «Finean, zer da idazle izatea? Idaztea besterik gabe, hortaz bizitzea?». Mikel Alzuart eta Urdirozek ere idazle lana asko mitifikatu dela uste dute. Arizkundarrak Lazkao Txikiren adibidea jartzen du: «Berak ez omen zuen bere burua bertso-laritzat jotzen». Urdirozek, baita, Pamiela argitaletxeak iaz kale-ratutako Martin Indabururen *Hego haizea* olerki liburuaren ekartzen du gogora: «Benetan sorta eder, borobila eta txukuna idatzi zuen. Benetan liluratu nau». X

Harri fiction

Juantxo Urdiroz

15. Galdetuko bazenit zer inpresio eman zigun On Karlos erregek, zeinarengatik anitz diren hildakoak, erranen nizuke biziki hunkitu ninduela erregeren biboteak.

Estetika handikoak irudituz zitzaizkidan erregeren ezpainbiloak, oso estetikoak, dudarik gabe erresuma bat merezi dutenak. Mundua-eta zuzentzeko sortuak. Nor ote zen gai bibote lirain horri muzin egiteko? Napoleonen eta Caesarren bibote berak ziren. Agintzeko sortuak. Historia bideratzeko eginak.

Jesukristok ez zuen biboterik, nik dakidala. Amodioaren autoritateak ez du biboterik, beraz.

16. Ixeba maitia:

Biharamunean On Karlosengana joateko erran ziguten. Onik ateratzearrekin aski genuen, baina erregek ez zekien nola pagatu gure lana. Biziaz gain bertze zerbaite oparitu nahi zigun. B.B. Queen bizargile gertu zen On Karlosentzako. Nik hamabi mando amari igorri nizkion, espero-orduak aringarriak suerta zekizkion. Garai hartan frontetik erretaguardiarainoko joan-etorria erruz egiten zuten zenbait konpainiak. Frontean hildakoen gorpuak eramaten zituzten sortetxera, lur santuan ehortzera; eta hamabi astoen mandatuak kontexko egiten zuten.

Argiastiko argi nabar eta urdinarekin bidean nengoen, Jose Agustín Lakabeg bataioiaren bila. Egitekoak eginkizun dira.

17. Sor Izeba Matxentxon:

Askotan pentsatzen dut, izeba santugai maittea, Santua izateko hondar tramite baino falta ez zaizun izeba maittea, eta ahalik eta beranduen gerta bedi, askotan pentsatzen dut, zu komentu lizun eta ilun horretan hertsirik egon beha-

rrean, gu geu garena mundu honetan zerkaturik, hesiturik, inguratirik bizi garenik, eta zu zarela libro dagoen bakarra. Zeruaren zabala zure muga da. Lurraren estua gure bidea.

18. Heldu den astean borrokara joatekoak ginen, eta berotze-gogoeta egite-meza entzute-baioneta garbitze-liberalak hilik mundua konponduta zego-kiskurtso bat aditu genuen.

Zorionez, maltzurak beste aldekoak ziren, gure aldekoa zen arrazola, gurekin zegoen Jaungoikoa. Hizlariak bere hitzaldia argumentatzeko erabili zituen maisu eta jakinaskoen artean, izeba maittea, zure izena ageri ez zenez, ez zitzaidan oso serio irudituz.

Karlismoa oso ideologia sendoa zela erratan ziguten. Ehun urterten buruan denek gogoan izango dute ideologia. Zergatik pentsatu behar ote dugu gure pentsakerak bide luzea egin behar duela, jeneralean guk baino guttiago irauten du-eta?

Karlismoarengatik Ilunberriko Puente de Las Cabras-en, 1875eko urrian hildakoen berri zeinek gorde ote du gogoan?

Pattarra botila bana eman ziguten.

19. Gerratean ibili ez ginenak fusilatze-ko guda-ri-tropa batean sartu gintuzten. Odol-bataioa lasaia izan genezan. Argiasti batean gizon bat ajustiziatu genuen. Hilerrri bateko hormaren kontra jarri, bot lagunek fusilekin apuntatu, eta *fuego* hitzarekin tiro egin. Hori izan zen nire lehen guda-ekintza. Mutila hilgogor seko bota zen. Sarjentuak bostak eman zizkidan, gudari fina izango nintzelakoan. Nireak kenduta gainontzekoen eskopetek bolbora baino ez zuten ixuri.

Ixeba, ez nazazu bakarrik utzi mundu honetan.

Baztan, zure baitan, zure errailetatik

Mikel Alzuart

12. Zure errailetatik zabaldu zen bailara babesten zaituen menditoen ilada puntatik puntara Baztan ibaia da ur denen ganbara udazken, udara edozein bolada margo baten zirrara

13. Zure errailetatik Azpilikuetatik hots Elbete, Erratzu Arizkun ta Lekaroz Elizondo, Arraioz Ziga, Iruirita alboz Berroeta. Oronoz Amaiur, Almandoz sarrera, Irteerak, hots Gartzaín, Aniz, hamabost

14. Zure errailetatik batasun berezia nahiz Amaiur luze kanpoan ikusia Arau Nagusia luzaro eutsia udal bat guzia beherantzia hasia egin duen jauzia herrien gabezia

15. Zure errailetatik lurra da iturburu lana noiznahi baina uztia inoiz seguru erein eta landu jorratu, bakandu lanéan ilundu ogia helburu elkarri lagundu jatorria urrun du

16. Zure errailetatik artoa eta garia bihurtzen zirenak taloa ta ogia inoiz ugaria famili haundia jana lan sarla baratze garbia esku nabaria zuen nekazarria

Garañoko gatazkaren bart bezperan egin besta ixila

Joxemiel Bidador

3. Eguzki Lorea (Jauzia)

txalaparta tobera! biak gauza bera lauburu ta etxea euskal jauzi behera eguzki lore zuin tinka oro ertsi hasiera gero ex duk amaiera borobil sobera eutsi ezina lera ausoa dea afera

Sajrat Quais harzara gal gaztel mairu prestu Oskiate alboan utzi Larrekua hustu Gaztelua goran da Garaño behean itsu Abd Al-Rahmān eguzkia argi orotan faltu suntuipen klarkiago azkon gibel usu

itx giga tent zurbildu xut aizto garaia aidean bits floka bi su malkor lasala zuzia iratxeki guziz euskal gaia bandera gorri hori arrano eta saia gal ala garai berdin kunpli bete nahia

Xanti Begiristain

Utzikeria eta arduragabekeria

■ Bernardo Atxaga Iruñean azkeneko aldiz izan zenean joan nintzen Gotorlekuko areto batera, errezitaldia eman behar zuenera, alegia. Ez dut oso ongi gogoratzen areto horren izena eta hanka ez sartzearen, badaezpada ere, ez dut jarriko hemen, baina, aldiz, aldieraziko dizuet non dagoen: Gotorlekura Armada etorbideetik sartu eta aurrez-aurre, zuzenean, azken muturrean dagoen erakinean, ba, hantxe bertan burutu zuten emanaldia. Eta, dena den, norbaitek oraindik ez baldin badu ongi kokatzen bere burua, lasai dagoela, horrek ez baitu aparteko garrantzirik. Kontua da, delako eraikin hori, orain dela urte gutxi, Alfredo Jaime Iruñeko alkatea zelarik, moldatu eta berritu egin zutela; besteak beste, publikoki esan zuten xahutu behar zutela diru kopuru jakin bat eraikin hori elbarriek ere erabiltzeko moduan uzteko. Aspaldian izana naiz toki horretan, baina jakina, moldaketak gauzatu baino lehen izan zen eta horregatik sartzeko eta ateratzeko airean eraman behar izan ninduten gurdixka eta guzti. Poesia errezitaldiaren egunean, berri, inozo honen pentsatzen zuten ez zela inolako arazorik izango sartu-ateratzeko, lanak aspaldian bukatu baitzituzten. Baina, hona hemen pasarteak:

'Sartu naiz Gotorlekuan Armada etorbideko aldetik eta eraikin ondoraino iristeko ez dut inongo arazorik izan'. Orain heldu zen jakinmina: Gainerako guztia nola egongo ote zen? 'Hurbildu naiz eta espaloia betiko lekuan aurkitu dut eta beti bezalaxe, hau da, egokipenen garaian ez zuten ukitu ere egin, antza. Espaloia igotzeko bi pertsonak lagundu didate. Ateraino iritsi eta ikusi dut, hau ere, betiko moduan dagoela, hots, koska bat gorantz eta beste bat behearantz; azken hau handixegoa. Hemen ere bizpahiru pertsonaren artean lagundu behar izan didate. Hortik aurrera ez dut eragozpen gehiagorik izan, zeren eta, zorionez, errezitaldi aretoa hantxe bertan baitzegoen, behean, alegia. Ateratzearan galdetu diot atezainari ea zer moduzkoa den eta nola dabilen jarritako igogailua. Irakurle, erantzuna ikusi baino lehen, eser zaitez eta itxi ongi ahoa; hobe, eutsi eskuaz, bestela, agian, erori edota barre egingo baituzu: 'Igogailu hau jarri zutenetik ez da sekula santan martxan ibili; ez dute ireki edo konektatu'. Antzeko erantzenen bat eman dit'.

Ikusten duzuen bezala, aldi hartan ere, ez ninduten harritu. Gezurra badirudi ere, Alfredo Jaime eta Juan Ramon Gantzedoren erregealdian gehiago

txunditzen ninduten zer edo zer ongi egiten zutenean, gaizki egiteagatik baino. Bai, horren ongi ohituta gintuzten...!

Baina, idela orokorrago bat har dezazuen, jarraian jarriko dizkizuet beste adibide batzuk: Nabarrera kalean, garai bateko Oskus lokalean orain Udalararen beste zerbitzu bat dago. Barruan bi aldapa ditu baina maldatsuegiak. Sarreran bi koska handi gehi espaloia; barruan bukaerarik gabeko eskailerak eta igogailurik ez. Atzo bertan ibili nintzen han hegan, bilera batera joan nintzen-eta. Espaloira igotzeko eta gero jaisteko gorriak eta beltzak ikusi genituen; arrazoiak? Aparkatutako kotxeen artean leku eza. Gazteriaren Etxean, antzeko zerbitzu: Sarrera oso ongi, baina barruan eskailerak baino ez; hor ere, azken bolada honetan, sarritan tokatu zait parapentea praktikatu behar izatea. Katedrala, Hizkuntz Politika, Hiritar Eragintza Alorra, eta abar. Sarrerak desagokiak.



Museoa: Sarrera gaizki baina erdipurdiko konponketa du. Labrit pilotalekua: Sarrera ongi baina zebrabideetako jaitsierak egin gabe. Arga ibai gaineko egindako zubi berria (martxan dagoena): Zebrabideetako jaitsierak gaizki bukatuak (3,4,5...zentimetro baitituzte eta beste leku batzuetan 6 eta 7 zentimetro). Ez zaituztet aspertu nahi adibide gehiagorekin; inork beharko balu, eskatzea dauka. Iruñean dauden areto publikoak denetzat erabilgarriak: Jus la Rotxa, Runa eta gutxi gehiago.

Udaletxean, alor honetan aritzen diren oraingo zinegotziek topatu omen dute karpeta bat gutxienez, eskaeraz beteta, baina Alfredo Jaime eta bere lagunek han aparkatuta utzirik. Uste dut, oraingo Hirigintzakoek zaila dutela aurrekoak gainditzea zabarkeriatan. Hobe dute horrela izatea bestela apuntatu beharko dut nire burua Delta Hegala Ikastaroren batera. Izan ere, non ikusi ote duzue sarreraren eskailerak dituen ibilgailuentzako garaje bat? ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Bernardo Recio
josulagunaren
olerkia

■ Askoak dira, egunero euskarari aitzikoak jasan beharreko guziak. Asteartean parada izan genuen, besteak beste, Har-kaitz Canok erditu *Kaktusaren teoria* bitxiaren berri eukitzeko. Lehengo egunean, lagun batek pasadizo harrigarri bat kontatu zidan. Kotxe istripu bat izan ostean, Hertzantzak hondatutako kotxearen ardura bereganatu zuen, eta hurrengo egunean, telefonoz kotxearen berri eskatzerakoan, honela ihardetsi zion hariaren bestaldean zegoen hertzain bizkarroi batek: «*Lo siento, pero yo hablo el dialecto vizcaíno, y no nos vamos a entender, así que hableme en español*». Iruzkina beharrik ez. Guziarekin ere, eta ez etsitzeko, beha diezaiozun historiari, ea kontrako adibideren bat kausi daitekeen.

Bernardo Recio lagundiko apez gaztelarrak Valladolideko Camposko Alaejos izeneko herrixka zuen sorterrri. Avilako apezpiku baten ardurari esker 1540an ireki zen Oñatiko unibertsitatea zela eta, bertan josulagunetik zituzten kaderetan aritzeko agindua jaso zuen. Ukan zituen sona handiko ikasleak ere, santu izendatzeko meritu adina zituen Francisco Palacios Lezeta frantziskotar txantxikua esate baterako.

Ez dakigu Hernaniko Agustín Kardaberaz euskal idazle naroa edota Andoingo Manuel Larramendi euskalari ospetsua lekaide aikokideak arrazoi benetakoak zirentz, edo, bestenaz, Aloñazpiko hirian karrika nahiz etxeetan aditzen ziren eleak-tzen mintzaira aldrebes zaramatikatsua, baina kasu da teologia irakaskizunetik uzten zizkioten lanartetan, eta aipatu Larramendiren gramatika abiapuntua hartuta, 1729. urteko *El imposible vencido* alegia, euskaraz ikasteari ekin ziola Recio aitak. Eta, ekin egitea ez ezik, baita ikasi ere, Mitxelena zioenez, hiru hilabetetan bakarrik. Ba omen zuen Alaejoskoak mintzoen aisa ikasteko dohala, eta euskaraz gain, Ameriketara joatea egokitu zitzaionean, Inken ketxueraz poliki ongi moldatzen bide zen.

Euskaraz baliatu zen bere predikuak eta herririk herri egiten zituen misionestetan artzai lanak borobiltzeko, mingainean etzuen haririk gero. Alabaina sinesgaitz xamar gerta dakioke egun norbaiti, are gehiago idatz litzakeen sermolen aztarna izkiriaturik eztagoela. Haatik, Santiago Onaindia Baseta karmeldarrek paratu zuen bere *Mila euskal olerki eder lan mardulean*, Bernardo aitak Felipe V.aen heriotza zela eta ondu olerki bat irakurgai dugu. Izan ere, 1743.ean, Espainako erregea hil zela, Salamancako ikastetxean lagundikoek egundoko festa egin zuten, aitzaki ezin hobea etzegokeen elestarien hitz jario urrez-tatuak agerian uzteko. Onaindiak zioen gisaz, «Bernardo Recio aitak, erregea andietzi ta euskera jasotearren, neurtitz au antola eban:

«*Il ote da? / Il ote da Felipe? / Baietz esaten da / Bai bada erregeueac ere / Biurtu bear dute berriro lurrera / Aurten il da —diote— / Gure erregeue ona / Esan bear da alere / bera il ceta ez aurten, baice ainchina.*

Erreguen ilteza cer / Da? Corioa utitzea / ta cenbat urte da ce / Utzi zuen gure Felipe corioa? / Ez negar orregatic / Españarrac ez negar / Baldin ain ainchinatic / Badator gure erregeuaren eriotza.

Ordu batean diotenez / Eroan cion eriotzac / Baño berac urte asco / Pocic eguin cituan eriotz oroitzean / Odolca su sartu / Zan Felipe Española / Bere eriotzac orregatic / Quentzen ezigu daucagun baquea / Ain ondo biciric / Ez bildur bere arimaz / Baice ichain dizeaquegu / Sartuco dala baquean ceruza.

Igo dedin lurretic / Ganbara urdin artara / Beti zañean da egongo / Jaungoico danezan betico eurenñuan / Iru seme erregeuquin / Bera errege birritan / Icentatzen da oegatic / Felipe au bi hider bostgarrena / Bici dedilla Fernando / Carlos bici dedilla / Bada Luis ainchina dago / Ainguerua leguez aingueruaren artean».

Honekero, gera dakigukeen kezka bakarra, olerki hau Donostiako hertzain bizkaieradun horrek ez ulertzea da. Ol gutti den lekuan, alki tiikia! ■



Nafarroako taldekako txapelketako zazpigarren jardunaldiko partida, 1995eko azaroaren 18an jokatu.

Jesus de la Villa (Iruñeko Oberena 'A'), 2.480 ELOkoa — Unai Garbisu (Iruñeko Orvina 'A') 2.355 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5,d6; 4.0-0,Zf6; 5.Ge1, Ae7; 6.c3,0-0; 7.d4,Ad7; 8.d5,Zb8; 9.Ad3,c6; 10.c4,Za6; 11.Zc3,Zc5; 12.Ac2,a5; 13.Ae3,b6; 14.Zd2,Dc7; 15.f3,Db7; 16.c6,Ac6; 17.Zf1,fG-d8; 18.Zg3,g6; 19.b3,b5; 20.Zb5,Ab5; 21.b5, Db5; 22.Ze2,aG-c8; 23.aG-c1,Db4; 24.Ag5,d5.

Ikus koadroa. Jokaldi bikaina, peoi horren ahulezia konponduko duelako. Baita erdigunea irabazi ere. Zuriek hori bermatzen zuen segada ikusi ez, eta partida hankaz gora jarriko dute.

25.Af6,Af6; 26.d5,Ag5; 27.Gb1,Ad2.

Orain 'Gf1' badago. Oso posizio ona hartuko lukete beltzek, baina jokatzetik balego.


28.a3. Gaitzen konponbidea dirudi, baina galera dakar.

28....,Db6. Xake ezkutu hori oso arriskutsua da. Oraindik 'Gf1' egin daiteke. Jokaldirik onena da, nahiz eta beltzek (Gd5) zutabea hartu. Zuriek, ordea, beste bide bat aukeratu zuten.

29.Eh1,Ae1; 30.De1,Gd5; 31.Zc3,dG-d8. Ezin dute peoia jan, 'Zd7' jokaldiarengatik. Galduta dau-de zuriak.

32.h3,Zd3; 33.Ad3,Gd3; 34.Ze4,f5; 35.Zf2, Gb3; 36.Gb3,Db3; 37.De5,Db1.

* Xake jarraiturik ez dago. Beste aldean babes daiteke erregea. Zuriek etsi zuten.



Nafarroako txahala, primerakoa

Kalitate Izendapena 1994. urteko azaroan sortu zen Nafarroako haragia bereizteko

Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Nekazal Eragintza Departamentuak antolatuta, behi haragiari buruzko jardunaldiak egin berri dituzte Iruñeko planetarioan. Bertan orain urtebete sortutako Nafarroako Txahala Kalitate Izendapenari buruz mintzatu ziren.

Edurne Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO eta oro har Euskal Herriko abeltzaintza alorreko ordezkariak Katalunia, Asturias eta Galiziako ordezkariekin batera egindako jardunaldietan orain urtebete sortutako Nafarroako Txahala Kalitate Izendapena izan da jorratu den gai nagusia. Bernardo Monreal izendapena arautzen duen kontseiluko lehendakaria da, eta berari egokitu zitzaion asteartean azken hamabi hilabeteetan egindako lanari buruz mintzatzea lankideen aurrean.

1994. urteko azaroan martxan jarri zenetik Nafarroako Txahala Kalitate Izendapenaren garapena argi eta garbi islatzen duten datuak ezagutarazi zituen lehenik eta behin Bernardo Monrealek. Nafarroako Txahala saltzen duten harategiei dagokionez, 46rekin abiatu zen Kalitate Izendapenaren ibilbidea eta egun zenbaki hori bikoiztu egin da, Iruñea eta inguruko herrietako 81 harate-



1994ko azaroan sortu zen Nafarroako Txahala kalitate izendapena.

ARTXIBOKOA

gitan saltzen baita orain Nafarroako Txahala.

Halaber, izendapenaren barruan dauden esplotazioak kontuan hartuta, 385 ziren iaz, eta egun, berriaz, 487, Nafarroako abeltzaintzako esplotazioen % 32. Azkenik, osotara Nafarroako Txahala Kalitate Izendapenak hartzen dituen behi hazamen kopuruari dagokionez, joan den urteko azaroan 8.900 behi ziren, eta aurtengo urrian 10.604. Guztira, 2.319 txahal hil

dituzte urte honen buruan, hau da, 711.754 kilo haragi.

Horiek urtebeteren buruan lortutako datuak dira, eta etorkizunean lortu nahi dutena ere argi daukate Nafarroako Txahala Kalitate Izendapenako ardura-dunek. Izan ere, Nafarroan egun diren eta hazamak dituzten 1.536 esplotazioak, guztiak, beraz, izendapenaren barruan sartzea lortu nahi dute. Monrealen ustez, lor daitekeena da, «gure proiektua sendotzen ari garela frogatu baitugu».

tean, egun Nafarroan ekoizten den kalitatezko haragia bereiztea eta prestigioatzea da funtsezkoa. Era berean, mota honetako haragia ekoizten duten esplotazioei behar bezalako erantzuna eman nahi die izendapenak.

Behi edo txahalen jabeek, trukean, badituzte ere betebeharreko hainbat baldintza. Txahalek, adibidez, edozein arrazatakoak direla, haragitarakoak izan behar dute, baita Nafarroakoek

bertakoek ere. Bai behi hazamak, bai txahalak, jaio bezain pronto identifikatu egiten dira, Nafarroako Txahala Kalitate Izendapenak ezarri dituen kontrol neurriak jarraituz. Neurri horien arabera, halaber, txahalek eta behiek jan beharreko guztia aztertu egiten da, beste hainbat azterketaren artean. Nafarroako Txahala Kalitate Izendapeneko ardura-dunek, halaber, euren haragia saltzen duten harategietako ezaugarri eta baldintzak ere maiz kontrolatzen dituzte.

Arrazari dagokionez, baldintza zehatzik ezarri. ez badute ere, erran beharra dago gehienak —% 75 inguru—, Nafarroako jatorrizkoa den Pirinioetako arrazakoak direla. Bernardo Monrealek, izendapena arautzen duen kontseiluko lehendakariak azaldu duenez, «primerakoa da Pirinioetako txahalen haragia, eta funtsezkoa da arraza hau izendapenarentzat». Nafarroako Gobernuak inbertsioak egin ditu azken urteetan Pirinioetako arraza hobetzeko asmoz, eta Monrealen ustez, «egindako lan guztiak bere emaitzak eman ditu, primerakoa den haragia lortuz».

Nafarroako Txahala Kalitate Izendapenaren ezaugarriak eta ibilbidea aztertzeaz gain, prozesu osoan parte hartzen duten sektoreen arteko hartu-emanak bizkortu nahi izan dituzte jardunaldien bidez. Izan ere, Monrealen ustez, abeltzainen, harakinen eta kontsumitzaileen arteko harremana funtsezkoa da prozesu osoak aurrera egin dezan.

Bernardo Monreal: «Eskaera handia da. Urte baten buruan Nafarroako txahala saltzen duten harategien kopurua bikoiztu da»

Pirinioetako arraza da nagusi • Nafarroako Txahala Kalitate Izendapena helburu zehatzak betetzeko asmoz jaio zen 1994. urteko azaroan. Helburu horien ar-

«Gure proiektua sendotuz doa»


NAFARROAKO Txahala kalitate izendapenaren proiektua 1992. urtearen erdialdean jarri zen martxan. Garai hartan lehen bilera egin zuten behi haragiaren produkzio eta komertzializazio alorreko ardura-dunek Nafarroako Gobernuak Abeltzaintza eta Nekazaritza kontseilariarekin. Bileran hartan, Nafarroako txahalaren kalitatea bereizteko izendapena sortu beharra aztertu eta proiektua aurrera ateratzeko aukerak eztabaiatu zituzten.

Bileran hartan, jada, egun proiektuan erabat murgilduta diren sektoreetako ordezkariak hartu zuten parte: Nafarroako Gobernuak Abeltzaintza Departamentuak, Osasun Publikoko Departamentuak, Nafarroako Pirinioetako Elkar-teak (Aspina), Komertzializazio alorreko kooperatibak, harakinen elkar-teak, Protektorako hiltokiak, EHNE eta UAGN sindikatuak, izendapena arautzeko kontseilua, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Nasersa zerbitzu enpresak eta betabereen ITG (Kudeaketarako Institutu Teknikoa).

Nafarroako Gobernuak agindu foralaren bidez 1994.

urteko ekainaren 13an Nafarroako Txahala kalitate izendapenaren proiektuarentzat egindako arautegia onartu zuen, izendapenaren ibilbideari hasiera emanez. Bernardo Monreal da izendapena arautzen duen kontseiluko lehendakari eta urte honen buruan lortutakoaz mintzatu da egunkari honekin. Monrealek, zehazki, izendapenaren barruan diren harakin eta esplotazioen kopuruan eman den hazkundea azpimarratu du. «Kontsumitzaileen aldetik, halaber, eskaera badagoela argi dago, horregatik bikoiztu baita Nafarroako txahala saltzen duten harategien kopurua».

Ez da lan erraza izan, ordea, azken hilabeteetako: «Hasieran proiektu guztiak dituzten arazoei egin behar izan diegu aurre guk ere». Hala ere, pixkanaka «sendotuz» doazela nabarmendu nahi izan du Monrealek. Asteartean burututako jardunaldi buruz, «hainbat herrialdeetako esperimentuak batu eta alderatzeko balio izan duela azaldu du kontseiluko lehendakariak. Bere ustez, hain zuzen ere, «arazoei aurre egiteko modurik onena guztiak elkartzea da». x



Bernardo Monreal da kontseilu arautzaileko lehendakaria.

JOXE LACALLE

♦ Javier E. Armentia ♦ ARPko lehendakaria

«Arreta gutxi eskaintzen digute»

J oan den asteburuan bigarren kongresua egin zuen Iruñeko planetarioan ARP elkarteak (Arrazoizko Alternatiba Sasizientziei). Estatu osoko zientzilari, kazetari, idazle eta abar bildu zen bertan sasizientziak arrazoiz aztertze asmoz. Bertan eztabaidatutakoaz elkartearen lehendakaria den Javier E. Armentiarekin mintzatu gara.

Edurne Elizondo / Iruñea


JAVIER E. ARMENTIA da ARP elkartearen lehendakaria. Sasizientzien aurrean arrazoiaren erabilera aldarrikatzen du eta bere elkartearen gainontzeko kideek bezala, ustez paranormalak diren fenomenoak azalpen zientifikoa ematea du helburu.

■ Bigarren kongresua egin berri duzue. Zer nolako balantzea egiten duzu?

Balantzea positiboa izan da. Alde batetik, partehartzaile ugari izan dira. Eztabaida piztu nahi genuen kongresu honetan eta horretarako 50 lagun baino gehiagok parte hartu izana garrantzitsua da. Beste alde batetik, jorratu ditugun gaiak dagokionez, interesgarriak izan dira eta kongresuan piztu diren eztabaidak ere sakonak.

■ Arrazoizko Alternatiba Sasizientziei zuzentzen duzun elkarteak antolatzen du kongresua. Nola azalduko zenuke elkarte honen helburu eta jarduerak?

Kultur erakunde bat da. Orain dela hamar urte sortu zen objektu hegalariei ezezagunak, etxe sorginduak eta beste hainbat fenomeno ikertzen eta aztertzen ari zen lagun talde bat elkartu zenean. ARP sortu zutenen ustez, izan ere, halako fenomenoak buruz komunikabideetan ematen zen informazioa ez zen zuzena.



ARPko lehendakaria da Javier E. Armentia.

JOXE LACALLE

Alternatiba gisa sortu zen, arrazoiak erabiliz fenomeno horiek guztiak azaltzen saiatzeko asmoz. Eta askotan lortu dugu. Gure helburua, beraz, bikoitza da, alde batetik ikerketa lana egiten dugu eta bestetik, halako fenomenoak azalpen zientifikoa ezagutarazten saiatzen gara. Elkarrekin osatzen duen jendeak dagokionez, badira medikuak, ingeniariak, biologoak, idazleak, filosofoak, kazetariak eta abar. Baita ikasle asko ere.

■ Komunikabideetan sasizientziei buruz agertzen den informazioa izan da kongresuan aztertutako gaita nagusietako bat. Zer ondorio ateratu duzue?

Negozio handia dagoela erran daiteke. Kongresuan egindako

mahaingurua kazetari askok hartu zuen parte eta gai hau uste baino konplexuagoa dela konturatu ziren. Alde batetik komunikabideen betebeharrak azter dezakegu. Horretarako adibide bat jar dezakegu: kazetari bati, nahiz eta azken orduan aliegatu, Felipe Gonzalezek dimisioa aurkeztu duela erraten duen teletipoa iristen bazaio, informazio hori egiaztatuko du argitaratu baino lehen. Berri sasizientifikoak, ordea, objektu hegalariei ezezagunei buruzkoak besteak beste, besterik gabe kaleratzen dira. Kriterioa ezberdina da.

■ Negozio handia dagoela erran duzu.

Bai. Gaur egun, hamaika produktuk mirakuluzkoren berri ematen duten beste hamaika iragarki dago irrati eta telebistetan. Irrati eta telebista horietako jabe edo arduradunei axola zaien bakararra, noski, iragarki horiek ematen dieten dirua da, ez besterik. Kontsumitzaileen elkarteetako kideek egun duten borroka ber-

bera daukagu guk. Azken finean, inolako euskarri zientifikorik ez duten produktuak iragartzen dituzte. Askotan, gainera, publizitate saioaren barruan agertzen dute, inolako bereizketarik egin gabe.

■ Medikuntza eta sasizientziak ere jorratu duzun beste gaietako bat izan da.

Eztabaidarik interesgarriena sortu zen gai hau jorratu genduan. Ondorio asko ateratu genituen baina horietako bat, medikuek gai honi buruz agertzen duten ardura eza izan zen. Hau da, mediku titulua ez duten petrikiloez arduratzen dira, baina bada mediku titulua duen petrikilo anitz ere. Bestalde, sasizientziazale hauengana jotzen dutenak ez dira bakarrik kultur malla baxua dutenak. Gai bat gertatzen da eta horretaz mediku askok hitz egin zuen kongresuan. Hau da, minbizia edo sendakuntzarik ez duen beste gaixotasunen bat duen norbaiti inolako aukerarik ez duela erratea izaten zaila

Javier E. Armentia nafarrari aspaldidanik sortu zitzaion fenomeno paranormalak zientziaren bidez azaltzeko eta aztertze asmoz. Grina horrek, azkenik, ARP elkar-terea (Arrazoizko Alternatiba Sasizientziei) eraman zuen eta bertan eman ditu azken hamar urteak. Gaur egun, elkarte honetako lehendakaria da Javier E. Armentia. Horretaz gain, Iruñeko planetarioko zuzendaria ere bada.

ARP elkarteak kaleratzen duen *La alternativa racional* aldizkarian askotan ikusi dute argia Armentia-aren artikuluek eta horietan, objektu hegalariei ezezagunak edo ura imantatzeko tramankuluak aztertu dituzte, besteak beste.

Orain dela astebete dozenaka deia jaso zituen Armentia-aren planetarioko bere bulegoan uesteko objektu hegalariei ezezaguna ikusi zutela erranez. «Jendea edozer gauza sinesteko prest dago». Objektu hegalariei ezezaguna globo bat besterik ez zen azkenik.

«Ustez fenomeno paranormalak direnak zientziaren bidez azaltzea da gure helburua»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI EROA

